# OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

**Organoa/ Órganoa:** Udalbatza/ *Pleno*

**Deialdia/ Convocatoria:** Lehenengoa / *Primera*

**Bilera mota/ *Tipo de sesión:*** Arrunta / *Ordinaria*

**Eguna/ *Día:*** 2024/02/12 / *12/02/2024*

**Ordua/ *Hora:*** *19:00etan / A las 19:00*

**Tokia / *Lugar:*** Herriko Etxeko Bilera Aretoa / *Sala de Plenos del Ayuntamiento*

**Bertaratuak / *Asistentes*:**

- D. Juankar Unanua Navarro jn. Igantziko Herri Taldea.
- D. Aitor Alonso Esteban jn. Igantziko Herri Taldea.
- Dña. Edurne Huitzi Eratsun and. Igantziko Herri Taldea.
- Dña. Irati Alkorta Garcia and. Igantziko Herri Taldea.
- D. Roberto Txoperena Iturbide jn. Igantziko Herri Taldea.

**Bertaratu ez direnak/ *No asisten:***

- D. Manuel Telletxea Iparraguirre jn. Igantziko Herria Taldea.

**Idazkaria/ *Secretaria:*** Nagore Madariaga Iriarte

**AZTERGAIAK/*ORDEN*:**

1. Azkeneko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Maria Mercedes Ibarra Arrecheari 1. poligonoko 85. lurzati ondoko bide publikoko eustorma handitzeko obra baimen onespena.
3. Anddo, Erroizko erreka eta Apaola parajeetan oihan aprobetxamendu salmenta enkantearen behin betiko esleipena.
4. Udal Plan Orokorreko Arau Subsidiarioen VII. Tituluko aldaketa egituratzailea. Behin behineko onespena. (Bigarren aldiz).
5. Elizateako eraikina birgaitzeko obra kontratuaren lizitazioa. Plegu arautzailearen eta prozeduraren onespena.
6. Igantziko abeltzaintzako azpiegituren hobekuntzarako obra kontratuaren lizitazioa. Plegu arautzailearen eta prozeduraren onespena
7. Aitor Begino Irigoyenek eta Maria Zamora Celayetak zinegotzi karguei aurretiazko ukoa egin diotela kargu hartzea.
8. Alkate Ebazpenak.
9. Galderak eta eskaerak.
10. M8ko adierazpen instituzionala “Matxismoa isilarazi”.

**Erabakiak/ *Acuerdos:***

**1.- Azkeneko aktaren onespena.**

***1.- Aprobación del último acta.***

2024ko urtarrilaren 10eko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

*SE APRUEBA POR UNANIMIDAD el acta del pleno ordinario de 10 de enero de 2024.*

***Roberto Txoperena Iturbide bilkuratik ateratzen da.*** (*)

**** Sale de la sesión Roberto Txoperena Iturbide**.*

**2.- Maria Mercedes Ibarra Arrecheari 1. poligonoko 85. lurzati ondoko bide publikoko eustorma handitzeko obra baimen onespena.**

***2.- Licencia de obra para la ampliación del muro de contención de la vía pública junto a la parcela 85 del polígono 1 a Maria Mercedes Ibarra Arrechea.***

Ikusirik 2023ko apirilaren 4an Maria Mercedes Ibarra Arrecheak aurkezturiko eskaera eta memoria baloratua, 1. poligonok 85. lurzati ondoko bide publikoko eustorma handitzeko.

*Vista la solicitud y la memoria valorada presentada el 4 de abril de 2023 por Maria Mercedes Ibarra Arrechea para la ampliación del muro de contención de la vía pública junto a la parcela 85 del polígono 1.*

Ikusirik 2023ko maiatzaren 9ko udal arkitektoaren txostenean xedaturikoaren arabera, zeina proposaturiko obra egiteko aldekoa den. Halaber, berariaz ohartarazten du gaur egungo Udal Planeamenduan xedaturikoaren arabera AA.16 jarduketa asistematikoak eragindako eremua dela, 1. poligonoko 83. lurzatiari dagokiona. Bertan, familia bakarreko 3 etxebizitza eta bideak handitzeko 248,00 m²-ko lagapena egitea arreikusten dira. Lagapen hori, 1. poligonoko 873. lurzatiari dagokion AA.17 jarduketa asistematikoari lotutako lagapenarekin batera, 1. poligonoko 85. lurzatian bukatzen den bidea 9 metroko zabalerako bide bat egitea du helburu. Horrela bada, etorkizuneko bide handipen horrek orain planteatzen den eustormaren handipenari eraginen lioke.

*Visto lo dispuesto en el informe del arquitecto municipal de 9 de mayo de 2023 favorable para la ejecución de la obra propuesta. Asimismo, advierte expresamente que, de acuerdo con lo dispuesto en el actual Planeamiento Municipal, el referido ámbito se encuentra afectado por la actuación asistemática AA.16, correspondiente a la parcela 83 del polígono 1. En ella se contemplan 3 viviendas unifamiliares y una cesión de 248,00 m² para la ampliación de viales. Dicha cesión, junto con la cesión vinculada a la actuación asistemática AA.17, correspondiente a la parcela 873 del polígono 1, tiene por objeto la ejecución de un vial de 9 metros de ancho que finaliza en la parcela 85 del polígono 1. Así pues, esta futura ampliación viaria afectaría a la ampliación del muro de contención que se plantea realizar.*

Ikusirik aipaturiko udal arkitektoaren txostenean komenigarritzat jotzen dela lizentzia sustatzailearen adierazpen baten baldintzapean egotea, non sustatzaileak, udalak hala eskatuz gero, eustormaren eskuhartzeari dagokion zatia bere kontura eraisteko eta/edo aldatzeko konpromisoa hartzen duen.

*Visto que en el citado informe del arquitecto municipal se considera conveniente que la licencia esté condicionada a la presentación de una declaración responsable del promotor en la que éste se comprometa a demoler y/o modificar a su costa, si así lo solicita el ayuntamiento, la parte correspondiente a la ampliación del muro de contención que pretende realizar.*

Ikusirik Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko testu bategina onesten duen

*Visto el artículo 190.5 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el*

uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 190.5. artikuluan xedaturikoaren arabera:

> *"5. Eraikitzeko eta lurzorua erabiltzeko egintzak partikularrek jabari publikoko lurretan egiten dituztenean ere, lizentzia eskatu beharko da, deusetan galarazi gabe jabari publiko horren entitate titularrak eman beharreko baimen edo kontzesioak."*

*Texto Refundido de la Ley de Ordenación del Territorio y Urbanismo:*

> *"5. Cuando los actos de edificación y utilización del suelo se realicen por particulares en terrenos de dominio público, deberá solicitarse licencia, sin perjuicio de las autorizaciones o concesiones que deba otorgar la entidad titular de dicho dominio público. "*

Ikusirik Administrazio Publikoen Administrazio Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 69.1. artikuluan xedarrikoaren arabera, erantzukizuneko adierazpen baten bidez sustatzaileak betebeharrak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen duela adierazi dezakeela, ekintza jakin batek irauten duen bitartean. Horrela bada, kasu honetan aplikagarria izanen litzateke sustatzaileak eustormak eginda irauten duten bitartean, udalak hala eskatuz gero, honako hau beharren arabera eraitsi edo aldatzeko konpromisoa hartzen duela adieraztea, bere kontura izanik egin beharreko eskuhartzearen kostua.

*Visto que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 69.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Administración Común de las Administraciones Públicas, el promotor puede manifestar su compromiso de seguir cumpliendo con sus obligaciones mientras dure una determinada acción mediante la presentación una declaración responsable. Por tanto, en el presente caso resultaría de aplicación que el promotor, mientras el muro de contención permanezca ejecutado, si así lo solicita el Ayuntamiento, se comprometa a demolerlo o modificarlo en función de las necesidades, siendo a su cargo el coste restitución a su estado original.*

Ikusirik Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 169. artikuluan xedaturikoaren arabera, sustatzaileari dagokiola egindako obraren Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ordaintzea.

*Visto que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 169 de la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra, corresponde al promotor el pago del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras de la obra realizada.*

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, POR UNANIMIDAD, ACUERDAN:*

1.- Maria Mercedes Ibarra Arrecheari, 1. poligonok 85. lurzati ondoko bide publikoko eustorma handitzeko obra baimen baldintzatua ematea. Horrela bada, obra egin aitzinetik ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN BAT aurkeztu beharko du non Igantziko Udalak eraitsi eta/edo aldatzeko errekerituz gero, errekerimendua egin eta gehienez ere urte bateko epean, eustorma eraitsi eta/edo aldatzeko konpromisoa hartzen duela adierazten duen, egin beharreko eskuhartzearen kostuak bere kontura izanik.

*1.- Conceder a Maria Mercedes Ibarra Arrechea la licencia condicionada de obra para la ampliación del muro de contención de la vía pública junto a la parcela 85 del polígono 1. En este sentido, con anterioridad a la ejecución de la obra deberá presentar una DECLARACIÓN RESPONSABLE en la que en caso de requerimiento de derribo y/o modificación por parte del Ayuntamiento de Igantzi, en el plazo máximo de un año desde el requerimiento, se comprometa a la demolición y/o modificación del muro de contención, siendo a su cargo los costes de la intervención a realizar.*

2.- Sustatzaileari jakinaraztea Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga dela eta, aurrekontuaren % 4 (2.200,00 €-ko aurrekontutik **88,00 €**) ordaindu beharko dela.

*2.- Comunicar al promotor que el pago del Impuesto sobre Edificios, Instalaciones y Obras será del 4% del presupuesto (**88,00** € del presupuesto de 2.200,00 €).*

3.- Sustatzaileari jakinaraztea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 88. artikuluan xedatutakoaren arabera, jakinarazitako zerga-zorra 30 egun balioduneko epean ordaindu beharko dela, obra egiten hasten diren egunetik zenbatzen hasita, ondorengo kontu-korronte batean transferentzia eginez:

- Caixabank: ES04 2100 5249 2122 0002 3916
- Nafarroako Rural Kutxa: ES90 3008 0054 1914 1636 8726

*3.- Comunicar al promotor que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 88 de la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra, la deuda tributaria notificada deberá ser ingresada en el plazo de 30 días hábiles, contados a partir de la fecha de inicio de la ejecución de la obra, mediante transferencia en la siguiente cuenta corriente:*

- *Caixabank: ES04 2100 5249 2122 0002 3916*
- *Caja Rural de Navarra: ES90 3008 0054 1914 1636 8726*

4.- Sustatzaileari jakinaraztea segurtasun eta osasun gaian bete beharrak obraren sustatzailearena dela eta edozein erantzukizuna bere gain izanen dela.

*4.- Informar al promotor que las obligaciones en materia de seguridad y salud corresponden al promotor de la obra, asumiendo cualquier responsabilidad.*

5.- Sustatzaileari jakinaraztea obran sortutako hondakinak 23/2011 Foru Dekretuaren arabera kudeatu beharko dituela.

*5.- Comunicar al promotor que los residuos generados en la obra deberán ser gestionados conforme al Decreto Foral 23/2011.*

6.- Sustatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

*6.- Comunicar al promotor que la presente autorización puede estar condicionada a la autorización de un tercero.*

7.- Sustatzaileari jakinaraztea baimen honen iraupena hauxe dela: urte bat lanak hasteko eta hiru urte bukatzeko.

*7.- Comunicar al promotor que la duración de la presente autorización es de un año para el inicio de los trabajos y de tres años para su finalización.*

8.- Sustatzaileari jakinaraztea obra egitez bukatzerakoan Igantziko Udalean egindako lanen argazkiak aurkeztu beharko dituela, geroko kontrola egin ahal izan dezan.

*8.- Comunicar al promotor que al finalizar la obra deberá presentar fotografías de los trabajos realizados en el Ayuntamiento de Igantzi para su posterior control.*

9.- Akordio hau sustatzaileari jakinaraztea, udal arkitektoaren txostenarekin batera, bere ezaguera eta ondorioetarako.

*9.- Comunicar el presente acuerdo al promotor, junto con el informe del arquitecto municipal, a sus conocimientos y efectos.*

**** Roberto Txoperena Iturbide bilkuran sartzen da.***

**** Entra en la sesión Roberto Txoperena Iturbide.***

**3.- Anddo, Erroizko erreka eta Apaola parajeetan oihan aprobetxamendu salmenta enkantearen behin betiko esleipena.**

Idazkariak azaldu du 2024ko otsailaren 11n, goizeko 9etan, Anddo erroizko erreka eta Apaola parajeen oihan aprobetxamendu salmentaren enkantea egiteko sesta emateko epea bukatu zela, baina ez ziren eskaintza gehiago aurkeztu. Horrela bada, esleipen proposamen IPAR FORESTAL, S.L. enpresari eman zitzaion, hura izan baitzen eskaintza ekonomiko hoberena aurkeztu zuena (57.820,90 €, BEZa kanpo).

Aipaturiko enpresari 7 eguneko epa eman zaio dokumentazio aurkezteko errekerimendua egin eta biharamunetik kontatzen hasita. Halaber, oraindik ez du aurkeztu eskaturiko dokumentazioa (emandako epearen barnean dago oraindik), beraz, idazkariak proposatu du gai ordenako puntu hau hurrengo osoko bilkuran lantzeko atzeratzea.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Gai ordenako puntu hau hurrengo osoko bilkuran lantzeko atzeratzea.

***3.- Adjudicación definitiva de la subasta de venta de aprovechamiento forestal en los parajes de Anddo, Erroizko erreka y Apaola.***

*La secretaria informa que el día 11 de febrero de 2024, a las 9 de la mañana, finalizó el plazo para realizar el sesteo de la subasta de la venta de aprovechamiento forestal en los parajes de Anddo Erroizko erreka y Apaola, sin que se presentaran más ofertas. Así, la propuesta de adjudicación fue para la empresa IPAR FORESTAL, S.L., que fue la que mejor oferta económica presentó (57.820,90 €, IVA excluido).*

*Se ha concedido a la citada empresa un plazo de 7 días, a contar desde el siguiente a la notificación del requerimiento, para la aportación de documentación. No obstante, aún no ha presentado la documentación solicitada (aún está dentro del plazo concedido), por lo que la secretaria propone posponer este punto del orden del día para su tratamiento en el próximo leno.*

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, POR UNANIMIDAD, ACUERDAN:*

*1.- Posponer este punto del orden del día para su tratamiento en el próximo Pleno.*

**4.- Udal Plan Orokorreko Arau Subsidiarioen VII. Tituluko aldaketa egituratzailea. Behin behineko onespena. (Bigarren aldiz.)**

Idazkariak azaldu du CENTRO VACACIONAL DE IGANTZI, S.L. enpresak sustatutako Igantziko Udal Plan Orokorraren VII. tituluko hirigintza-zehaztapen egituratzaileen aldaketa behin-behinean onartu zela 2023ko abuztuaren 9ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez. Halaber, Nafarroako Gobernuko Hirigintza Atalak 2021eko urriaren 5ean egindako errekerimenduaren ondoren, eta sustatzaileak 2023ko azaroaren 8an zuzendutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, bidezkoa da aldaketa hori behin-behinean onartzea bigarren aldiz.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO KIDEEN LEGEZKO

***4.- Aprobación provisional de la modificación del Título VII de las Normas Subsidiarias del Plan General Municipal. (Segunda vez).***

*La secretaria expone que la modificación de determinaciones urbanísticas estructurantes del Título VII del Plan General Municipal de Igantzi promovido por la empresa CENTRO VACACIONAL DE IGANTZI, S.L., fue aprobado provisionalmente mediante acuerdo del pleno de 9 de agosto de 2023. No obstante, tras el requerimiento efectuado por la Sección de Urbanismo del Gobierno de Navarra de fecha 5 de octubre de 2021, habiendo presentado la promotora la documentación subsanada en fecha 8 de noviembre de 2023, procede volver a aprobar provisionalmente por segunda vez la citada modificación.*

*El pleno, una vez oída la información, ACUERDA POR MAYORÍA ABSOLUTA DEL NÚMERO*

KOPURUAREN GEHIENGO OSOZ ERABAKI DU:

*LEGAL DE MIEMBROS DE LA CORPORACIÓN:*

1.- CENTRO VACACIONES IRISARRI DE IGANTZI, S.L. enpresak sustatutako Udal Plan Orokorraren araudiaren VII. Tituluaren aldaketa egituratzailea behin-behinean onartzea bigarren aldiz.

*1.- Aprobar por segunda vez provisionalmente la modificación estructurante del Título VII de la normativa del Plan General Municipal promovida por la empresa CENTRO VACACIONAL IRISARRI DE IGANTZI, S.L.*

2.- Espediente osoa Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren arloko eskumenak dituen departamentuari igortzea, behin betiko onets dezan, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.2.d) eta 71.12 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

*2.- Remitir el expediente completo al Departamento con competencias en materia de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Gobierno de Navarra para su aprobación definitiva, conforme a lo dispuesto en los artículos 77.2.d) y 71.12 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.*

**5.- Elizateako eraikina birgaitzeko obra kontratuaren lizitazioa. Plegu arautzailearen eta prozeduraren onespena.**

***5.- Licitación del contrato de obra para la rehabilitación del edificio Elizatea. Aprobación del pliego regulador y del procedimiento.***

Ikusirik 2023ko maiatzean Elizateako eraikina birgaitzeko obra zuzendaritzak prestaturiko plano eta aurrekontu egokitua. Izan ere, hasiera batean aipaturiko obra egiteko kontratua CONSTRUCCIONES BORESTE, S.A. enpresari esleitu ondoren, honako hau ebatzi egin zen kontratistaren erruzko ez betetzeagatik.

*Visto el plano y presupuesto adaptado de mayo de 2023 elaborado por la dirección de obra para la rehabilitación del edificio Elizatea. En efecto, tras la adjudicación inicial del contrato para la ejecución de la obra de referencia a la empresa CONSTRUCCIONES BORESTE, S.A., se resolvió por incumplimiento culpable del contratista.*

Ikusirik 2024ko otsailaren 6an idazkari-kontuhartzaileak prestaturiko txosten juridiko-ekonomikoa.

*Visto el informe jurídico-económico elaborado el 6 de febrero de 2024 por la secretaria-interventora.*

Ikusirik aipaturiko obra egiteko 1 9200 6820001 ELIZATEAKO OBRA aurrekontu partidan 550.000,00 €-ko kreditua dagoela.

*Visto que existe crédito en la partida presupuestaria 1 9200 6820001 ELIZATEAKO OBRA por importe de 550.000,00 €.*

Kontuan hartu da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 162. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa.

*Considerando lo dispuesto en los artículos 162 y siguientes de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos.*

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, POR UNANIMIDAD, ACUERDAN:*

1.- Elizateako eraikina birgaitzeko obra kontratuaren plegu arautzaileei eta lizitazio prozedura abiarazteari onespena ematea.

*1.- Aprobar los pliegos reguladores del contrato de obras de rehabilitación del edificio Elizatea y la iniciación del procedimiento de licitación.*

2.- Kontratu hau prozedura irekiaren bidez

*2.- Abrir el procedimiento para la adjudicación del*

esleitzeko prozedura irekitzea, eta dagokion iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzeko agindua ematea, hogeita hamar egun naturaleko epean egoki iritzitako proposamenak aurkez daitezen.

*presente contrato por el procedimiento abierto, ordenando la publicación del correspondiente anuncio en el Portal de Contratación de Navarra, para que en el plazo de treinta días naturales se presenten las proposiciones que se estimen oportunas.*

**6.- Igantziko abeltzaintzako azpiegituren hobekuntzarako obra kontratuaren lizitazioa. Plegu arautzailearen eta prozeduraren onespena.**

***6.- Licitación del contrato de obras para la mejora de las infraestructuras ganaderas de Igantzi. Aprobación del pliego regulador y del procedimiento.***

Ikusirik 2023ko uztaileko Igantziko abeltzaintzako azpiegituren hobekuntzarako 2023. kanpainako proiektua, Martin Mindeguia Ochandorena basogintzako ingeniari teknikoak eta Andres Zelaieta Eltzaurdia basogintzako teknikoak egina.

*Visto el proyecto de mejora de infraestructuras ganaderas de Igantzi, campaña 2023, de julio de 2023, elaborado por el ingeniero técnico forestal Martín Mindeguia Ochandorena y el técnico forestal Andres Zelaieta Eltzaurdia.*

Ikusirik 2024ko otsailaren 6an idazkari-kontuhartzaileak prestaturiko txosten juridiko-ekonomikoa.

*Visto el informe jurídico-económico elaborado el 6 de febrero de 2024 por la secretaria-interventora.*

Ikusirik aipaturiko obra egiteko 1 4121 6920001 ABELTZAINTZAKO AZPIEGITUREN MOLDAKETAK aurrekontu partidan 82.000,00 €-ko kreditua dagoela.

*Visto que existe crédito en la partida presupuestaria 1 4121 6920001 ABELTZAINTZAKO AZPIEGITUREN MOLDAKETAK por importe de 82.000,00 €.*

Kontuan hartu da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 162. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa.

*Considerando lo dispuesto en los artículos 162 y siguientes de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos.*

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, POR UNANIMIDAD, ACUERDAN:*

1.- Igantziko abeltzaintzako azpiegituren hobekuntzarako obra kontratuaren plegu arautzaileei eta lizitazio prozedura abiarazteari onespena ematea.

*1.- Aprobar los pliegos reguladores del contrato de obras de mejora de las infraestructuras ganaderas de Igantzi y la iniciación del procedimiento de licitación.*

2.- Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleitzeko prozedura irekitzea, eta dagokion iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzeko agindua ematea, hamabortz egun naturaleko epean egoki iritzitako proposamenak aurkez daitezen.

*2.- Abrir el procedimiento para la adjudicación del presente contrato por el procedimiento abierto, ordenando la publicación del correspondiente anuncio en el Portal de Contratación de Navarra, para que en el plazo de treinta días naturales se presenten las proposiciones que se estimen oportunas.*

**7.- Aitor Begino Irigoyenek eta Maria Zamora Celayetak zinegotzi karguei aurretiazko ukoa egin diotela kargu hartzea.**

Ikusirik Maria Zamora Celayetak eta Aitor Begino Irigoyenek zinegotzi karguei aurretiazko ukoa egiteko izenpetutako idazkiak. Idazki horiek sarrera-erregistroan aurkeztu ziren 2024ko urtarrilaren 29an eta 30ean 59. eta 93. zenbakiekin, hurrenez hurren. Idazkian, aurretiaz karguei borondatez uko egiteko arrazoiak agertzen dira.

Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 26ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 9.4. artikulua eta Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182 artikulua betez.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Aitor Begino Irigoyenek eta maria Zamora Celayetak Igantziko Udaleko zinegotzi karguei aurretiaz uko egin diotela berri hartzea.

2.- Erabaki honen ziurtagiria bidaltzea Hauteskunde Batzorde Zentralari, uko-egiteen idazkiekin batera, eta adieraztea, udalbatza honen iritziz, Gorka Obeso Inza dela kargu hutsa bete behar duen pertsona, uko egin dutenen zerrendan hurrengoa, eta Batzordeari eskatzea dagokion izendapen-agiria bidal dezala, kargua hartu ahal izan dezan.

3.- Akordio hau Aitor Begino Irigoyeni, Maria Zamora Celayetari eta Gorka Obeso Inzari jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

**8.- Alkatearen ebazpenak.**

2024ko 2tik 19ra Ebazpenen berri eman da eta UDALBATZAK BERRETSI DITU.

***7.- Toma de conocimiento de las renuncias anticipadas al cargo de concejales del Ayuntamiento de Igantzi presentadas por Aitor Begino Irigoyen y Maria Zamora Celayeta.***

*Vistos los escritos de renuncias a los cargos de Concejales suscritos por Maria Zamora Celayeta y Aitor Begino Irigoyen, presentados, respectivamente, por registro de entrada con los números 59 y 93 de fecha 29 y 30 de enero de 2024, en virtud del cual ponen de manifiesto las razones que les han llevado a formalizar las renuncias anticipadas voluntarias a los cargos.*

*En cumplimiento de los artículos 9.4 Real Decreto 2568/1986, de 26 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, y 182 LO 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General.*

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, POR UNANIMIDAD ACUERDAN:*

*1.- Tomar conocimiento de las renuncias anticipadas al cargo de concejales del Ayuntamiento de Igantzi presentadas por Aitor Begino Irigoyen y Maria Zamora Celayeta.*

*2.- Remitir Certificación de este acuerdo a la Junta Electoral Central junto con las copias de los escritos de renuncia e indicación de que la persona a la que corresponde cubrir la vacante, a juicio de esta Corporación, es Gorka Obeso Inza, siguiente de la lista, y solicitar a la Junta que remita la correspondiente credencial para que pueda tomar posesión de su cargo.*

*3.- Notificar el presente acuerdo a Aitor Begino Irigoyen, Maria Zamora Celayeta y Gorka Obeso Inza, para su conocimiento y efectos oportunos.*

***8.- Resoluciones de Alcaldía.***

*Se informa sobre las Resoluciones del 2 al 19 de 2024 y el PLENO LAS RATIFICA.*

**9.- Galderak eta eskaerak.**

Ez dira egin.

Halaber, hurrengo osoko bilkura martxoan izanen dela jakinda eta akordio bat hartzeko dagoen premia ikusirik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 81.2. artikuluan xedaturikoaren arabera, ondorengo puntua osoko bilkura honetan eztabaidatu daitekeela dio idazkariak.

**10.- M8ko adierazpen instituzionala "Matxismoa isilarazi".**

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, agerian utzi nahi dugu berdintasun politika publikoek eta feminismoak duten balioa, gizarte-mugimendu eta mugimendu teoriko eta politiko gisa, emakumeek eta gizonek eskubide berak dituzten berdintasunezko gizarte libre baterantz aurrera egiteko. Erdietsitakoa gora behera, benetako berdintasunerantz aurrera egiten jarraitu behar dugula aldarrikatzen jarraitzen dugu.

Feminismoak ibilbide luzea egin du mugimendu sozial eta politiko gisa, eta historian zehar genero-desberdinkerien aurrean emakumeek duten ezinegona adierazteko modu baketsuak izan ditu ezaugarri beti. Feminismoa ezagutza zientifikoa ere bada, sistema patriarkalari eusten dioten elementuak teorizatu eta kontzeptualizatzeko azterketa eta analisi ibilbide luze batekin. Baina mugimendu feministaren lorpen bakoitzak beti izan du erreakzio matxista bat, kontrako erantzun bat, ezarritako ordena sozialari eustea defendatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-harremanak ezabatuko dituen benetako eraldaketa soziala saihesteko. Erreakzio hori bereziki nabarmena izan da azken urteotan, batez ere aldarrikapen feministak agenda politikoan sartu direnetik.

Informazioaren teknologiek eta ingurune digitalek, oro har, beste esparru batzuk sortzea erraztu dute, eta esparru horietan, hain zuen, erreferente eta/edo programa feministen eta berdintasun arloko edozein aurrerapen edo lorpenen aurkako eraso antolatuak eta deskalifikazioak sustatzen

*9.- Ruegos y preguntas.*

*No se realizan.*

*Asimismo, sabiendo que la próxima sesión plenaria se celebrará en marzo y de la necesidad de llegar a un acuerdo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 81.2 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, la secretaria señala que el siguiente punto puede ser debatido en este pleno.*

***10.- Declaración Institucional 8M "Silencia el machismo".***

*Este 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres, queremos poner de manifiesto el valor de las políticas públicas de igualdad y del feminismo como movimiento social, teórico y político en el avance hacia una sociedad igualitaria y libre, donde mujeres y hombres disfruten de los mismos derechos. Continuamos reivindicando que, a pesar de estos logros, tenemos que seguir avanzando hacia la igualdad real.*

*El feminismo tiene una larga trayectoria como movimiento social y político, siempre caracterizado por sus formas pacíficas de manifestar el malestar de las mujeres ante las desigualdades de género a lo largo de la historia. El feminismo es también conocimiento científico, con un largo recorrido de investigación y análisis para teorizar y conceptualizar los elementos que sostienen el sistema patriarcal. Pero cada logro feminista siempre ha obtenido una reacción machista, una contra respuesta para defender que se mantenga el orden social establecido y evitar una transformación social real que elimine las relaciones de desigualdad entre hombres y mujeres. Esta reacción ha sido especialmente notoria en los últimos años, principalmente desde que las reivindicaciones feministas han entrado en la agenda política.*

*Las tecnologías de la información y los entornos digitales en general han facilitado la creación de espacios donde se promueven ataques organizados y descalificaciones contra referentes y/o programas feministas y contra cualquier avance o logro en materia de igualdad. El discurso*

dira. Feminismoaren eta emakumeen aurkako gorroto-diskurtsoa Interneten espazioak hartzen ari da, eta manosfera izenarekin ezagutzen dugunaren inguruan biltzen da. Inguru horretan antolatzen da matxismoa eta bertatik hedatzen dira mezu anti-feminista eta misoginoak. Gure testuinguruan, Manosferako talde edo azpikultura bereizgarrienak dira gizonen eskubideen aldeko elkarte edo taldeak, sedukzioaren guruak, influencer eta eduki-sortzaile antifeministak, foroak, incelak...

Matxismo digitala batez ere gazteengan eragina duen komunikazio- eta harreman-modu berri bat da. Ideiak eta interpretazioak azkar eta berehala hedatzen dira, eta mezuak etengabe sortzen dira, zehaztasunik eta inolako analisi edo eztabaida kritikorik gabe, horiek indartzen dituzten daturik edo ebidentziarik gabe. Maskulinitate tradizionalaren eredua betikotzea xede duten gezurren eta fake news delakoen garaian bizi gara. Maskulinitate horretan gizonek eta emakumeek ezarritako genero-rolak betetzen jarraitzea sustatzen da. Desberdinkeriak zalantzan jartzen dituzten eta, are gehiago, emakumeek gizonak menderatu nahi dituztela iradokitzen duten mezuak; sexu-indarkeria hutsaldu edo are emakumeen aurkako indarkeria existitzen dela ukatzen dutenak; emakumeen askatasuna behin eta berriz zalantzan jartzen dutenak... Internet hartzeaz gain, mezu horiek instituzio publikoetan oihartzuna dute, eta aurrerapen berrien lorpena zailtzen dute, dagoeneko adostasun soziala zuten eztabaidak berriz ere zalantzan jarriz.

Berdintasuna deserosoa da bizi dugun gizartea birpentsatzera eta modu kritikoan aztertzera behartzen gaituelako. Ikasitakoa etengabe zalantzan jartzen du pertsonek askatasunez eta baldintzatzailerik gabe erabaki dezaketen eredu berriak eraikitzeko. Feminismoa, historian zehar emakumeen ahalduntzea bultzatu duena eta gizarte aldaketa handiak lortu dituena, oso kritikoa da ere maskulinitate hegemonikoarekin (tradizionala), eta hainbat hamarkada daramatza gizonak interpelatzen. Zuzeneko interpelazio horrek beldurra eta aldaketarekiko erresistentziak eragiten ditu gelditasunean erosoago dauden gizarteko sektore batzuetan. Manosferak bere burua zalantzan jartzeko eta aldatzeko beharrik ez duten espazio bat eskaintzen die, arrakalatutako

*de odio hacia el feminismo y las mujeres está ocupando espacios en internet y se agrupa en lo que denominamos manosfera. En ese marco, el machismo se organiza y es desde donde se difunden mensajes antifeministas y misóginos. En nuestro contexto, los grupos o subculturas más características de la Manosfera son las asociaciones o grupos por los derechos de los hombres; gurús de la seducción; influencers y creadores de contenido antifeministas; foros; incels...*

*Este machismo digital es una nueva forma de comunicación y relación que cala sobre todo en la población joven. Las ideas y las interpretaciones se expanden de forma rápida e inmediata, con la continua creación de mensajes que se emiten sin rigor, sin ningún análisis o cuestionamiento crítico, sin datos o evidencias que los respalden. Vivimos en la era de los bulos o fake news que pretenden perpetuar un modelo de masculinidad tradicional, donde se fomenta que hombres y mujeres sigan cumpliendo los roles de género establecidos. Mensajes que cuestionan las desigualdades o que incluso insinúan que las mujeres y el feminismo pretenden subordinar a los hombres; que banalizan la violencia sexual o incluso niegan la existencia de la violencia contra las mujeres; que cuestionan continuamente la libertad de las mujeres… Además de invadir internet, estos mensajes tienen eco en las instituciones públicas y dificultan el logro de nuevos avances, volviendo a poner en cuestión debates en los que ya existía consenso social.*

*La igualdad incomoda porque obliga a repensar y analizar de forma crítica la sociedad en la que vivimos. Cuestiona continuamente lo aprendido para construir nuevos modelos donde las personas puedan decidir libremente sin condicionantes. El feminismo, que históricamente ha impulsado el empoderamiento de las mujeres logrando grandes cambios sociales, es muy crítico también con la masculinidad hegemónica (tradicional), y lleva varias décadas interpelando a los hombres. Esta interpelación directa provoca miedo y resistencias al cambio, por parte de ciertos sectores de la sociedad que se encuentran más cómodos en el inmovilismo. La Manosfera les ofrece un espacio donde no tienen que cuestionarse ni cambiar, donde poder restablecer la masculinidad*

maskulinitatea leheneratzeko aukera ematen diena.

*resquebrajada.*

Internet eztabaida publikoa polarizatu eta inpunitatea errazten duen etsaitasunezko toki bihurtzen duen diskurtso horren aurrean, beharrezkoa da emakumeek lortutako eskubideak finkatzea bermatzen duten berdintasun politikak sustatzen jarraitzea, eztabaida publikoa errespetutik egitea sustatzea, agenda politikoan desberdinkeriak agerian utziz, aurrera egiten jarraitzeko.

*Frente a este discurso que convierte internet en un lugar hostil que polariza el debate público y favorece la impunidad, es necesario seguir impulsando políticas de igualdad que garanticen la consolidación de los derechos logrados por las mujeres, fomentar el debate público desde el respeto, evidenciando en la agenda política las desigualdades para seguir avanzando.*

Adierazpen hau bultzatzen dugun Toki Entitateek honako konpromiso hauek hartu ditugu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen jarraitzea gure esku-hartze eremuan politika publikoen bitartez eta udal-arau, -plan eta -proiektu guztietan genero-ikuspegia txertatuta.
- Azterketa eta ikerketa feminista bultzatzen jarraitzea gure testuinguruan, pertsonen bizitzako esparru eta etapa guztietan dauden desberdinkeriak ikusarazteko.
- Mugimendu feministaren ekarpenak eta lana aitortzea, bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko, erakundeekin hitz egiteko guneak sortuz.
- Adin guztietako gizonekin esku-hartzea bultzatzea, berdintasunezko maskulinitate-ereduen eraikuntza sustatzeko.

*Las Entidades Locales que impulsamos esta declaración nos comprometemos a:*

- *Seguir promoviendo la igualdad entre mujeres y hombres en nuestro ámbito de intervención a través de las políticas públicas y la incorporación de la perspectiva de género en todas las normas, planes y proyectos municipales.*
- *Continuar impulsando el estudio y la investigación feminista en nuestro contexto para visibilizar las desigualdades existentes en todos los ámbitos y en todas las etapas de la vida de las personas.*
- *Reconocer las aportaciones y el trabajo del movimiento feminista para el logro de una sociedad justa e igualitaria, creando espacios para la interlocución con las instituciones.*
- *Impulsar la intervención con los hombres, de todas las edades, para promover la construcción de modelos de masculinidad igualitarios.*

Bertzerik gabe, arratsaldeko 19:45 izanik, bilera bukatutzat jo da eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

*Siendo las 19:45 de la tarde se pone fin a la reunión de la que se levanta la presente certificación de la secretaria, para hacer constar lo que se acuerda.*

**O.E ALKATEA/ *V.B. DEL ALCALDE***

**IDAZKARIA/ LA SECRETARIA**

Juankar Unanua Navarro

Nagore Madariaga Iriarte